

**ANTZERKI ERAKUSTALDIA. ESZENATOKI GAINEAN IKASTEN**  
**MUESTRA DE TEATRO. APRENDIZAJE SOBRE EL ESCENARIO**



# BARAÑAIN

Udal informazioaren aldizkaria  
Boletín informativo municipal  
nº91.zk 2019ko apirila abril 2019  
DL NA 1782-2012



**EL FESTIVAL  
INTERNACIONAL  
DE TÍTERES  
Y MARIONETAS  
CELEBRA SU  
XXV EDICIÓN**

**XXV FESTIVAL  
DE TÍTERES**  
BARAÑAIN 2019 Del 3 al 5 de mayo  
**XXV. TXOTXONGILO  
JAIALDIA**  
BARAÑAIN 2019  
Maiatzaren 3tik 5era

**NAZIOARTEKO  
TXOTXONGILO  
ETA MARIONETA  
JAIALDIAK XXV.  
URTEURRENA  
OSPATUKO DU**



# NAZIOARTEKO TXOTXONGILO ETA MARIONETA JAIALDIAREN XXV. URTEURRENA

Maiatzaren lehen astean, eszenategi bilakatuko da Barañaingo udaletxeko plaza beste behin ere, amets egiteko moduko istorioak antzetzuko baitira.

**B**arañaingo Nazioarteko Txotxongilo eta Marioneta Jaialdiak XXV. urteurrena ospatuko du aurten, eta sorpresaz beteriko edizioa ekarriko du horren karira. Hamar konpainia, naziokoak zein nazioartekoak (Italia, Australia eta Belgika), hartuko ditu jaialdiak, adin guztietarako ikusleentzako istorioak dakartzatenak.

Ohiko jardueraz gain, hala nola lanen emankizunak edo haurren lanen eta lehiaketara aurkeztutako kartelen erakusketak, jaialdiaren irekiera-ekitaldia da aipatzekoa aurten, umore-umoretsua izango baita Kalendula eta Musutruka pailazoan eskutik, baita kalejira ere, marioneta erraldoiek gidatuko baitute musika-talde batek girotuta.

## AGENDA

### Maiatzak 2, osteguna. Udaletxeko plaza

- 12:00etan. "Numenak". Yarleku konpainia (Nafarroa). (Euskaraz)
- 15:15ean. "Númenes". Yarleku konpainia (Nafarroa). (Gaztelaniaz)

### Maiatzak 3, ostirala. Udaletxeko plaza

- 10:00etan eta 12:00etan. "Colgando de un hilo". Di Filippo Marionette konpainia (Italia, Australia). (Testurik gabe. Musika zuzenean)
- 18:00etan. Jaialdiaren hasiera, Kalendula eta Musutruka pailazoan eskutik (Nafarroa). (Gaztelaniaz eta euskaraz)
- 19:00etan. "Maleta. Misión espacial secreta". Mutis konpainia (Segovia). (Gaztelaniaz)

### Maiatzak 4, larunbata. Udaletxeko plaza

- 11:30ean "Pirata Garrapataren abenturak". Patata Tropikala konpainia (Euskadi). (Euskaraz)
- 13:00etan. "Títeres y danzas". Plansjet konpainia (Belgika). (Testurik gabe. Musika zuzenean)
- 17:30ean. "Las aventuras del pirata Garrapata". Patata Tropikala konpainia (Euskadi). (Gaztelaniaz)
- 19:00etan. "Pasacalles la Deli". La Deliciosa Royala konpainia (Madrid). (Testurik gabe. Musika zuzenean)

### Maiatzak 5, igandea. Udaletxeko aretoa

- 11:30ean. "Egunen batean". Behibi's konpainia (Euskadi). (Euskaraz)

### Maiatzak 5, igandea. Udaletxeko plaza

- 13:00etan. "Animales". El Retablo konpainia (Madrid). (Testurik gabe)
- 19:00etan. "Jolgorio del bueno". Titiriteros de Binéfar konpainia (Aragoi). (Gaztelaniaz eta musika zuzenean). XXV. edizioaren amaiera.

# XXV ANIVERSARIO DEL FESTIVAL INTERNACIONAL DE TÍTERES Y MARIONETAS

La primera semana de mayo, la plaza del Ayuntamiento de Barañaín sirve de escenario, un año más, para la representación de historias que nos harán soñar.

**E**ste año, el Festival Internacional de Títeres y Marionetas de Barañaín celebra su XXV aniversario con una edición muy especial llena de sorpresas. El festival reunirá a un total de diez compañías nacionales e internacionales (de Italia, Australia y Bélgica) que traen sus narraciones dirigidas a personas de todas las edades.

Además de las actividades habituales, como las representaciones de las obras o las exposiciones de los trabajos infantiles y de los carteles presentados al concurso, este año hay que destacar la apertura del festival, que será realizada con mucho humor por las payasas Kalendula y Musutruka, así como un pasacalles con marionetas convertidas en gigantes acompañadas de un conjunto musical.

## AGENDA

### Jueves, 2 de mayo. Pza. Ayuntamiento

- 12.00h. "Númenes". Compañía Yarleku (Navarra). (Euskera)
- 15.15h. "Númenes". Compañía Yarleku (Navarra). (Castellano)

### Viernes, 3 de mayo. Pza. Ayuntamiento

- 10.00 y 12.00 h. "Colgando de un hilo". Compañía Di Filippo Marionette (Italia, Australia). (Sin texto. Música en vivo)
- 18.00h. Apertura del festival, con Kalendula y Musutruka (Navarra). (Castellano y euskera)
- 19.00h. "Maleta. Misión espacial secreta". Compañía Mutis (Segovia). (Castellano)

### Sábado, 4 de mayo. Pza. Ayuntamiento

- 11.30 h. "Las aventuras del pirata Garrapata". Compañía Patata Tropikala (Euskadi). (Euskera)
- 13.00 h. "Títeres y danzas". Compañía Plansjet (Bélgica). (Sin texto. Música en vivo)
- 17.30 h. "Las aventuras del pirata Garrapata". Compañía Patata Tropikala (Euskadi). (Castellano)
- 19.00 h. "Pasacalles la Deli". Compañía La Deliciosa Royala (Madrid). (Sin texto. Música en vivo)

### Domingo, 5 de mayo. Sala del Ayuntamiento

- 11.30h. "Egunen batean". Compañía Behibi's (Euskadi). (Euskera)

### Domingo, 5 de mayo. Pza. Ayuntamiento

- 13.00h. "Animales". Compañía El Retablo (Madrid). (Sin texto)
- 19.00 h. "Jolgorio del bueno". Compañía Titiriteros de Binéfar (Aragón). (Castellano y música en vivo) Clausura del XXV Festival.

## BESTE JARDUERA BATZUK

### Apirilaren 9tik maiatzaren 10era. Kultura Etxeko korridoreetan

- Erakusketa, Barañaingo Nazioarteko Txotxongilo eta Marioneta Jaialdiaren XXV. edizioa iragartzeko kartelaren XV. lehiaketara aurkeztutako kartelena.
- Erakusketa, "Nire titerea eraikitzen" eta "Titere-istorio irudidun edo komiki-erako bat 2018" haurrentzako lehiaketaren lanena.

### Apirilaren 29tik maiatzaren 10era. Barañaingo udaletxeko erabilera anitzeko aretoa eta dendak

- Erakusketa: Barañaingo Txotxongilo eta Marioneta Jaialdiaren kartelak gogoan!

### Maiatzaren 3tik 5era Udaletxeko plaza

- Artisautza-azoka. A-Mano elkarte ■

## OTRAS ACTIVIDADES

### 29 de abril al 10 de mayo. Pasillos de la Casa de Cultura

- Exposición de los carteles presentados al XV Concurso de Cartel Anunciador del XXV Festival Internacional de Títeres y Marionetas de Barañaín.
- Exposición de los trabajos de los concursos infantiles "Construyo mi títere" y "Una historia de títeres en forma de cómic 2018".

### 29 de abril al 10 de mayo. Sala de Usos Múltiples de Ayuntamiento y tiendas de Barañaín

- Exposición: ¡Recordando los carteles del Festival de Títeres de Barañaín!

### Del 3 al 5 de mayo. Pza. Ayuntamiento.

- Mercadillo de artesanía. Asociación A-Mano ■




## Kartel-lehiaketaren XV. edizioa

Jaialdiaren kartela diseinatzeko lehiaketak XV. edizioa bete du. Epaimahaiak Rubén Lucas García egindako lana jo du irabazletzat. Murtzian bizi da diseinatzailea, eta mota horretako lehiaketetan parte hartu ohi du. Hartara, haren lanek Galizia, Euskadi eta Extremadurako festak iragarri dituzte, besteak beste, baita Nafarroako batzuk ere. Jaialdiaren kartelak marioneta baten eta hari begira liluratuta dagoen ume baten artean sortzen den konplizitatea islatzen du.

## XV edición del concurso de carteles

El concurso de diseño del cartel del festival ha cumplido su XV edición. El jurado ha elegido como ganadora a la obra realizada por Rubén Lucas García, diseñador afincado en Murcia que participa habitualmente en este tipo de concursos. Así, sus creaciones han informado de fiestas patronales en Galicia, País Vasco, Extremadura... y de otras localidades de Navarra. El cartel del festival representa la complicidad que surge entre una marioneta y un niño que le mira ilusionado.



# ANTZERKI ERAKUSKETA

**Irurtzuno, Orkoieno, Barasoaino eta Barañaino antzerki tailerretako kideek azken hilabeteetan landu dituzten antzezlanak jendaurrean aurkeztuko dituzte.**



Cartel de la obra del taller de teatro de Irurtzun. Irurtzuno antzerki tailerren antzezlanaren kartela.

**M**aiatzaren 10etik aurrera, hilabeteko ostiral guztietan, 20:00etan, Barañaino udaltxeko erabilera anitzeko aretoa antzoki bihurtuko da. Ehun pertsona inguru sartu, eta oso antzezlan berezietan disfrutatuko dute. Antzezlan horiek lau herri hauetako antzerki tailerretako ikasleek prestatu dituzte: Irurtzun, Orkoien, Barasoain eta, ezin bestela izan, Barañain.

«Ohiz egiten den hainbat udalen arteko harremana da», esan du Maria Serranok, erakusketaren zuzendariak eta Barañaino antzerki tailerreko irakasleak, «eta tailerren parte hartzen dutenen ikasketaren zati bat gehiago da, bukaera bikaina: ikasi duten antzezlanaren emanaldia publikoaren aurrean».

## Lau argumentu ezberdin

- **Maiatzaren 10ean**, Irurtzuno tailerreko ikasleek *Mujeres de casa vieja* lana antzeztuko dute, adin eta egoera ezberdinetako emakume talde bat protagonista duen obra poetiko bat.
- **Maiatzaren 17an**, Orkoieno tailerren txanda izango da: *Jólibud nos mata*; komedia bat da eta Jólibudera fama bila joaten diren hiru emakumeren istorioa kontatzen du. Baina Jólibudek gauzak zail jarriko dizkie.
- **Maiatzaren 24an**, Barasoaino antzerki tailerrek jarraituko du zikloarekin, *La Dra. Hockenmeier* antzezlanarekin. Lanak Hockenmeier doktore entzutetsua aurkeztzen du, sendategi mental bat zuzentzen duen emakumea, non eromena alde guztietatik dagoen eta zentzutasuna ez den agertzen.
- **Maiatzaren 31n eta ekainaren 1ean**, Barañaino antzerki tailerrek *Orden de clausura* aurkeztuko du. Antzezlan horren protagonistak moja-etxe batean bizi diren moja alai batzuk dira, eta Fray Perfectori aurre egin beharko diote, moja-etxea itxi nahi du eta.

# MUESTRA DE TEATRO

**Las personas participantes en los talleres de teatro de Irurtzun, Orkoien, Barasoain y Barañain presentan en público las obras trabajadas en los últimos meses.**



Orden de clausura. Obra del taller de teatro de Barañain. Orden de clausura. Barañaino antzerki tailerren antzezlan.

**A**partir del día 10 de mayo, todos los viernes a las 20.00 horas, la Sala de Usos Múltiples del Ayuntamiento de Barañain se transforma en un teatro con capacidad para un centenar de personas que van a poder disfrutar de unas obras muy especiales. Se trata de las piezas teatrales que ha preparado el alumnado de los talleres de teatro de cuatro localidades: Irurtzun, Orkoien, Barasoain y, como no puede ser de otra forma, Barañain.

“Se trata de un intercambio entre varios ayuntamientos que se viene haciendo con regularidad”, afirma Marisa Serrano, directora de la muestra y profesora del taller de teatro de Barañain, “y es una parte más del aprendizaje de las personas que participan en el taller, es el broche final: la representación en público de la obra aprendida”.

## Cuatro argumentos variados


- **El día 10**, el alumnado del taller de Irurtzun pondrá en escena *Mujeres de casa vieja*, una obra poética protagonizada por un grupo de mujeres de distintas edades y condición.
- **El 17 de mayo** será el taller de Orkoien quien representará su propuesta: *Jólibud nos mata*, una comedia que narra la historia de tres mujeres que emprenden el camino a Jólibud en busca de fama. Pero Jólibud no se lo pondrá nada fácil...
- **El 24 de mayo**, el ciclo continúa con *La Dra. Hockenmeier*, del taller de teatro de Barasoain. La obra presenta a la prestigiosa doctora Hockenmeier, quien dirige un delirante sanatorio mental donde la locura campa a sus anchas y la cordura brilla por su ausencia.
- **El 31 de mayo y el 1 de junio**, el taller de teatro de Barañain presentará *Orden de clausura*, una historia protagonizada por un grupo de alegres monjas residentes en un convento que deberán hacer frente a Fray Perfecto y a su objetivo de cerrarlo.

**Lan guztiak 20:00etan antzetzuko dira, eta ikusi nahi dituen edonor gerturatu daiteke.**



Cartel de la obra del taller de teatro de Barasoain. Barasoingo antzerki tailerraren antzezlaren kartela.

**Todas las obras se representan a las 20.00 horas y están abiertas a todas las personas que quieran acercarse a verlas**



Cartel de la obra del taller de teatro de Orkoien. Orkoien antzerki tailerraren antzezlaren kartela.

## «Antzerki tailerrak bizitzako tresna gisa balio du»

Marisa Serrano Barañaingo Udaleko kultura-etxeko antzerki tailerreko irakaslea da; egun, 15 pertsona inguruk osatzen dute. Pentsa daitekeenaren aurka, tailerra eszenatoki gainean nola antzeztu behar den ikasteko jarduera izateaz gain, pertsona gisa hazteko tailerra ere bada. «Antzerkia tresna baliagarrietako bat da hobetzeko, hazteko, autoestimua handitzeko...» dio Marisak. «Tailerrean, talde bateko kidea zara, taldean egiten duzu lan, zure burua erakusten duzu, empatia lantzen duzu, egoera zailei aurre egiten diezu, hala nola jendaurrean hitz egiteari, eta sentitzen duzuna adieraztera behartzen zara. Tailerrean, entzutearen, akatsaren eta gaitzaren bitartez, aurreratu eta pertsona gisa hazten zara. Oso argi daukat antzerki tailerrak bizitzako tresna gisa balio duela» baieztatu du.

Tailerra urtero egiten da, urritik maiatzera, astean behin, bi ordu eta erdiz, eta bi ikasketa fase ditu. Lehenengoa urtarrilera arte da, eta gorpuzkera, ahotsa eta espresioa, besteak beste, lantzen dira giro ludiko, dinamiko eta parte-hartzailean. Bigarrena otsailetik maiatzera arte da, eta antzezlaren baten prestaketa eta eszenaratzea lantzen dira.

Tailerrean nahi duen pertsona orok parte hartu dezake, adina, sexua, jatorria, egoera ekonomikoa, bizi-helburuak... kontuan hartu gabe. «Hain zuzen ere, aniztasunak aberasten du taldea. 16 urteko zein 70 urteko pertsonak egotea, horixe da berezia; izan ere, leku, esperientzia, zalantza, beldur eta dibertsio berdinak partekatzen dituzte. Ikasteko modu bat da, baina jakin gabe ikasten ari zarela» esan du Marisak, interesa daukaten pertsonak animatu nahian.

## «El taller de teatro sirve como herramienta de vida»

Marisa Serrano es la profesora del taller de teatro de la Casa de Cultura del Ayuntamiento de Barañaín, formado actualmente por unas quince personas. Contrariamente a lo que pueda parecer, el taller no es solo una actividad para aprender a actuar sobre un escenario, sino que también es un taller para crecer como persona. «El teatro es una de las herramientas más útiles para mejorar, para crecer, para incrementar la autoestima...», sostiene Marisa. «En el taller formas parte de un grupo, trabajas en equipo, te muestras, trabajas la empatía, te enfrentas a situaciones difíciles, como hablar en público, y te obligas a expresar lo que sientes. Un taller donde, desde la escucha, desde el error y desde la superación, avanzas y creces como persona. Tengo muy claro que el taller sirve como herramienta de vida», afirma.

El taller se realiza anualmente desde octubre hasta el mes de mayo, una vez por semana durante dos horas y media, y tiene dos fases de aprendizaje. En la primera, hasta el mes enero, se trabajan técnicas como el cuerpo, voz y expresión en un entorno lúdico, dinámico y participativo. La segunda va de febrero a mayo y consiste en la preparación y representación en el escenario de una obra teatral.

El taller está abierto a todas las personas que lo deseen, independientemente de la edad, sexo, origen, situación económica, objetivos vitales... «Precisamente es la diversidad la que enriquece el conjunto. Lo más especial es que haya personas de 16 y de 70 años que compartan espacio, experiencias, dudas, miedos y diversión. Es una forma de aprender sin saber que estás aprendiendo», concluye Marisa animando a todas las personas interesadas a que se inscriban.

# SORMEN ETA GARAPEN ESPASIO BAT



ESCUELA MUNICIPAL DE MÚSICA  
"LUIS MORONDO"  
UDALAREN MUSIKA IKASTETXEA

Maiatzaren bian, Barañaingo "Luis Morondo" Musika Eskolak izena emateko epea irekiko du musika-heziketa jaso nahi duten adin guztietako pertsonentzat.

## UN ESPACIO DE CREACIÓN Y DESARROLLO

El dos de mayo, la Escuela de Música de Barañaín "Luis Morondo" abre el plazo de matriculación para todas aquellas personas, no importa la edad, que quieran formarse musicalmente.

**7**06 ikasle ditu Barañaingo "Luis Morondo" Musika Eskolak. Nafarroako bigarrena da ikasle-kopuruari erreparatuta, Iruñekoaren atzetik (ehun ikasle gehiago soilik ditu gure herrikoak baino). Horrek erakusten du zer-nolako garrantzia duen 1983an –kontserbatorio gisa, lehen, eta, gero, eskola-musika gisa– zabaldu-tako erakunde honek.

Musika-irakaskuntzako erreferentea da eskola herrialde osoan, punta-puntako instalazioak dituelako eta, batez ere, irakaskuntza-metodo egoki-egokia duelako, taldekako parte-hartzea sustatzen baitu. Honelaxe deskribatzen du 2016tik eskolako zuzendari nagusia izandako Juan José Torresek: "Ikaskuntza-sistemak eman dio eskolari jendearen esker ona, eta imitatzen hasi dira beste zentro batzuk. Oso mentalitate irekia dugu eskolak emateko orduan. Taldekako ikaskuntza sustatzen dugu, taldeka antolatzen baititugu eskolak; horrez gain, ikasleentzat erakargarriak eta hurbilagoak diren abestiak erabiltzen ditugu beti, teknikaren ikuspegitik posible bada, haien interesa pizte aldera. Gainera –gehitu du– gaitasun handia dute irakasleek ikasleen nahietara egokitzeke".

### Heziketa baino gehiago

Hainbat musika-elkarte ditu eskolak; ikasleek osatutakoak dira, eta kontzertuak eta bestelako jarduerak egiten dituzte hala Barañaín nola beste herri batzuetan ere. Honako hauek dira:

- LAU MUSIKA-BANDA
  - Banda-hastapenak (8 urtekoak)
  - Haurren banda (9-10 urtekoak)
  - Banda txikia (11-13 urtekoak)
  - Banda gaztea (14 urtetik gorakoak)
- HIRU ORKESTRA
  - Haurren orkestra (8-10 urtekoak)
  - Orkestra txikia (11-13 urtekoak)
  - Orkestra gaztea (14 urtetik gorakoak)
- BIG BAND
- COMBO-TALDEAK
  - Akordeoilari-taldea
  - Txistulari-taldea
- HELDUEN FANFARREA

Dena den, eskolako nabarmengarriena, zalantzarik gabe, giro bikaina da, ikasleen artekoa zein ikasleen eta irakasleen artekoa. "Okena da eskolan sortzen diren giza harremanak, aniztasunaren emaitza direnak, neurri batean", dio Juan José Torresek. "Adin guztietako pertsonen zuzenduta dago eskola. Izan ere, ikasle askok heldutan erabakitzen dute musikaren munduan hastea".

**C**on 706 estudiantes, la Escuela de Música de Barañaín "Luis Morondo" es la segunda más numerosa de Navarra, solo tras la de Pamplona (que únicamente cuenta con un centenar más de personas en formación), cifra que da una idea de la importancia de esta institución abierta en 1983 como conservatorio y diez años más tarde ya como escuela de música.

La escuela es un referente en la enseñanza musical en todo nuestro país porque cuenta con unas instalaciones punteras y, sobre todo, gracias al método de enseñanza, que fomenta la participación grupal. Juan José Torres, director general del centro desde 2016, lo remarca así: "La escuela es reconocida por el sistema de aprendizaje, que empieza a ser imitado por otros centros. Tenemos una mentalidad muy abierta a la hora de dar la clase. Favorecemos el aprendizaje en grupo, con clases grupales; además si técnicamente se puede, siempre utilizamos canciones que al alumnado les parezcan atractivas y más cercanas, de este modo crece su interés. Además -añade- el profesorado tiene una alta capacidad para adaptarse a las inquietudes del alumnado".

### Más que formación

La escuela cuenta con diversas agrupaciones formadas por el alumnado que realizan conciertos y otras actividades, tanto en Barañaín como en otras localidades. Son las siguientes:

- CUATRO BANDAS DE MÚSICA
  - Iniciación a banda (8 años)
  - Banda infantil (9-10 años)
  - Banda txiki (11-13 años)
  - Banda joven (14 años en adelante)
- TRES ORQUESTAS
  - Orquesta infantil (8-10 años)
  - Orquesta txiki (11-13 años)
  - Orquesta joven (14 años en adelante)
- BIG BAND
- GRUPOS DE COMBOS
  - Grupo de acordeones
  - Grupo de txistus
- FANFARRE DE ADULTOS

Aunque lo más destacable de la escuela, sin duda, es el excelente ambiente que se respira en ella, tanto entre el alumnado como entre este y el profesorado. "Lo mejor son las relaciones humanas que se forman en el centro, sostiene Juan José Torres, en parte debido a la diversidad. La escuela está abierta a personas de todas las edades, por lo que también hay muchos adultos que deciden iniciarse en la música siendo mayores".

**MUSIKA-TRESNAK  
ETA IZEN-EMATEAK**

Adin guztietakoek (5 urtetik gora betiere) eta maila guztietakoek izena eman dezakete eskolan.

- **Izen-emateen hasiera:** maiatzak 2, osteguna.
- **Ikasturtearen hasiera:** iraileko bigarren astea.
- **Ikasturtearen amaiera:** ekaineko bigarren astea.

**Musika-tresnak:** akordeoia, baxu elektrikoa, bonbardinoa, kantua, klarineta, gitarra elektrikoa, zeharkako flauta, oboea, perkusioa, pianoa, saxofoia, tronboi irristailuduna, tronpa, tronpeta, tuba, txistu, biola, biolina eta biolontxelo.

**Barañaingo "Luis Morondo" Musika Eskola**  
Nafarroako Komunitatea kalea 2,  
31010 Barañaín  
Tel: 948 18 53 43

**INSTRUMENTOS  
Y MATRICULACIÓN**

En la escuela se pueden inscribir personas de todas las edades, a partir de cinco años, y de todos los niveles.

- **Inicio de preinscripciones:** jueves, 2 de mayo.
- **Inicio del curso:** segunda semana de septiembre.
- **Fin del curso:** segunda semana de junio.

**Instrumentos:** acordeón, bajo eléctrico, bombardino, canto, clarinete, guitarra eléctrica, flauta travesera, oboe, percusión, piano, saxofón, trombón de varas, trompa, trompeta, tuba, txistu, viola, violín y violoncelo.

**Escuela de Música de Barañaín "Luis Morondo"**  
Calle Comunidad de Navarra, 2,  
31010 Barañaín  
Tel. 948 18 53 43



Dos momentos de la sesión de enseñanza de instrumentos a los más pequeños. Argazkietan, musika-tresnak nola jo irakasten txikienei.



■ **LUCÍA DEL CAMPO, 7 años**  
"En la escuela aprendemos mucho. Quiero aprender a tocar el piano"



■ **ANDREA VILLANUEVA, 7 años**  
"Me gustan las clases con Ana porque me gusta mucho cantar. Cuando sea más mayor quiero tocar la guitarra"



■ **JUAN ALEJANDRO TOLOZA, 7 años**  
"Es mi primer año de guitarra. Es difícil, pero estoy practicando mucho"



■ **ANNE RODRÍGUEZ, 7 años**  
"Lo que más me gusta es estar con mis compañeros. Jugamos un montón y lo pasamos muy bien. Me gustaría aprender a tocar la batería"



■ **ASIER OROZ, 7 años**  
"En clase me lo paso muy bien jugando con todos mis amigos. Me gusta la batería"



■ **DANIELA URRIBARRI, madre de Juan Alejandro Toloza**  
"Mis dos hijos vienen a la Escuela de Música y están muy contentos y nosotros también. Quiero destacar el profesorado de la escuela, que es muy bueno. En Colombia esto es un lujo al que tienen acceso pocas personas, pero aquí, en Navarra, es asequible para muchos".



■ **MAITE ZIGANDA, eskolan izena emandako bi umeren ama**  
"Atsegin dugu musika etxean, eta, batez ere, musika-lengoaia, bizitzarako lanabesak eta bestelako baliabideak ematen dituelako. Gainera, musika-karrera egitea oso erabilgarria da, ate asko zabalitzen dituelako. Oso gustatzen zait Barañaingo Musika Eskola, umeek ikasi eta ongi pasatzen dutelako".

BARAÑINGO EGUNA  
18 DE MAYO • MAIATZAK 18

CARRERA SOLIDARIA

BARAÑAIN

TSUNZA

ELKARTASUN LASTERKETA

2K / 5K / 10K



**Horarios de carrera (Plaza del Ayto.) •  
Lasterketen ordutegiak (Udal Plaza)**

**Carrera adultos • Helduen lasterketa  
10:30h. 2km, 5km y 10km**

Carreras infantiles gratuitas • Dohainik diren haurrentzako lasterketak.  
10:00h: 450 m. Nacidos entre 2010-2012 bitartean jaiotakoak. 450m  
10:10h: 900 m. Nacidos entre 2007-2009 bitartean jaiotakoak. 900m  
10:20h: 300 m. Nacidos a partir del 2013 tik aurrera jaiotakoak. 300m

**Colabora con el centro de alimentos SASKIA  
y trae 1 kg de arroz, azúcar o cereales.**

**Inscripciones • Izen emateak**

**Precio • Prezioak**

**2km - 8€**

**5km - 8€**

**10km - 10€**

**Web: [www.baranain-tsunza.com](http://www.baranain-tsunza.com)**

Finikas: en S.M. Lagunak.

Viernes 3 y 10 de Mayo de 18:00h a 21:00h

Sábado 4 y 11 de Mayo de 11:00 a 13:00h

Finikoki Lagunak Udal Zerbitzuan.

Maiatzak 3 eta 10; ostiralak, 18:00etatik 21:00etara.

Maiatzak 4 eta 11; larunbatak, 11:00etatik 13:00etara.

Patrocinan • Babesten dute



Organizan • Antokizaren dute



Colaboran • Laguntzaileak

